

<b>Izenburua</b>	<i>Jalgi hadi plazara!</i>
<b>Formatua</b>	Testuliburua
<b>Argitaletxea</b>	Ikaselkar
<b>Nori zuzendua</b>	DBH 2ko ikasleei
<b>Konpetentzia</b>	Ikasleak, egoera adierazgarri batean, errealitate bati buruzko informazioa ematen du, nabarmendu nahi dituen alderdiei buruz hainbat iturritatik jasotako informazioak integratuz, eta mezuaren adierazpenerako deskribapena, esperientzien koontaketa zein irudi grafikoak eta bestelakoak baliatuz.
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erreportajeen ereduak aztertuz haien komunikazio-asmoa inferitu eta egituraren osagaiak bereizi eta ezagutza hori norberaren testuaren planifikazioan erabiltzea.</li> <li>• Informazioa eskuratzea helburu duen aurrez planifikatutako elkarrizketan, aurrez aurreko egoeraren ezaugarrien arabera galdera egokiak egin eta interakziorako estrategiak aplikatzea.</li> <li>• Testu bateko ideien arteko erlazio semantikoa inferitzea, eta erlazio horiek adierazteko hizkuntza-baliabideak zein progresio tematikoa bideratzen dutenak norberaren ekoizpenean erabiltzea.</li> <li>• Besteen hitzak norberaren diskurtsoan txertatzeko landutako hizkuntza-baliabideak aplikatzea.</li> <li>• Emandako enuntziatuetan izen-sintagmak eta haien osagaiak identifikatu, eta, osagaiak deklinatuz, esaldi zuzenak idaztea.</li> <li>• Hizkuntzen bizitzaren eta garapenaren eragileei buruzko informazioa identifikatu eta adieraztea, inguruko errealitate soziolinguistikoaren berri ematen duten testuak aztertuz.</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	Euskara eta soziolinguistika izango dira unitate osoan mintzagai. Horiei buruzkoak direlako lantzen diren testu gehienak eta horren ingurukoa izango delako ikasleek sortu behar dutena ere.

	<p>Erreportaje bana sortuko dute, eta, ondoren, gelako erreportaje guztiekin erreportaje-bilduma osatuko dute. Herriko euskararen egoerarekin eta euskara-jendearekin lotutako gaiei buruzkoak izango dira erreportajeak. Horregatik, elkarrizketak egingo dituzte, herriko euskara jendearengana hurbiltzeko, haiei buruzko lehen mailako informazioa gertu-gertutik eskuratzeko. Egoera soziolinguistikoa islatzeko hiztegia, adibideak eta testigantzak, alegia, bizitzaren esperientzia, herriko pertsonen ahotik jasoko dute. Ikasleak eurak ere plazara jalgiko dira, kanpora irtengo, elkarrizketak egitera; horrek dakarren aberastasunarekin.</p> <p>Erreportajea eta elkarrizketa lantzerakoan, ahozko nahiz idatzizko diskurtsoak sortuko dituzte, beraz. Ahozko testuak eta testu idatziak ulertzen eta ekoizten trebatuko dira.</p>
<b>Denboralizazioa</b>	Eskola-liburu hau ikasturteko 3 unitatetik 3. unitateari dagokio, hortaz, ebaluazio oso bateko iraupena izango luke lanketa honek.